

INGURUGIRO BATZORDEAREN AKTA

EGUNE:2011-12-14

LEKUE:Batzar gela.

HASMENTA ORDUE:19:05.

BILDUTEKUAK:

- Xabier Artola
- Felix Ligos
- Ruth Peña
- Martin Mindegia
- Pedro Arteta
- Karlos Peña
- Iban Larretxea.
- Jon Elizetxe

GAIK:

- Hazitegia
- Biomasa
- Baratzeak
- konpostajea
- merkatu/kontsumo puntua

HAZITEGIA

Afera honekin azpibatzerde bat eratu zen eta proposamen batzuk ekarri zituzten batzordera.Urtarrilean gai honen inguruan hitzaldi bat egitea proposatzen da eta Ruth arduratuko da hortaz.udalak hazitegia jartzeko lekurik duen begiratuko du ondoko batzordean proposatzeko.

BIOMASA

Gai honen inguruan berririk etzegoenez ondoko batzordean tratatuko da berriz nobedaderik badago.

BARATZEAK

Baratzeak eskatu ahal izateko eta demanda ezagutzeko epe bat ereki zen eta 40 persona apuntatu dira herri desberdinetan.Afera honen inguruan asesore bat bilatzeko beharra azpimarratu zen.Azpibatzerde bat egitea proposatu zen eta honek proposamen eta planteamentu desberdinak ondoko batzordera ekartzea.

KONPOSTAJEA

Eskoletan konpostajea lantzeko eta ikasteko hezkuntza batzordearekin egotea proposatu zen.Bertzalde,udalean konposterak eskatzeko aukera dagoela eta,medioei jakinaraztea proposatu zen eta konpostera komunitarioen inguruan saikera batzuk egitea

elizondon. Akitzeko xaloarekin konpostajeari buruzko erreportai bat egitea (adibidez Aizarotzen) proposatu zen.

MERKATU/KONTSUMO PUNTUA

Ondoko batzordeko landare kooperatibako norbait gonbidatzea proposatu zen beraien esperientzia kontutan hartuta hemen ere halako inizatiba bat martxan jartzeko. Etxalarren/Beran ere halko proiektu bat omen dago eta beraiekin ere harremanetan jarrito da. Akitzeko Gasteizko udalak eratu zuen fundazioari buruzko informazioa ere ekartzen saiatzea.

Hurrengo batzorde erekia otsailak 15ean izando da, atsaldeko 19etan, gai hauek tratatuko direlarik: baratzeak, biomasa, haziak, merkatu/kontsumo lekua, konpostajea...

BUKAERA ORDUE: 20:30etan.